

ZALDIYA

LEPO zutatu zerbait uztaia, eta bere zurdille ugari garbiya aizetaratuaz, puso agits guztagarri ederrean, lurrerañoko atzeki illetsua eskui ezer astinduaz, azaldu zan Zirko galai batean, guztizko zaldi urgullutso bat, deituaz atentziyo aundiya, bada añ zan egokiya eta ichura ederrekoa.



Ezitzalle abillak, atera ziyon brida edo abokua; pasa diyo eskua bere bizkar zabalean eta siñu batera, abiyatu da zaldi leyala, korrika biziyen.

¡Ayek gauza politak egiten zituen! ¡Dantzatzen zuen añ egoki, musikako puntuak justu justu eramanaz, pauso bat galdu gabe! ¿Gerrariyen klariña entzuten bazan? gerrarako zaleturik, abiyatzen zan irrirtzika.

Bat batetan korrika bizitik geldituaz, etzan eta jartzen zan illa balego bezela edo bere nagusiyen aurrean belaunikatuaz, ematen ziyon musu bat umiltasun aundiyan.

Jende guziya arriturik eta oso guztatuba, egiten ziyozkan zekulako chaluak.

Alcha da bere eseri alki ederretik; galai gazte apañ bat, eztakit nongo printzipia zala, bere aita erregeak zerbait sosegatzeko aren espiritu sutsua eta argi bidean jartzeko, bialiya erbeestera, zeñek ojukada batean—diyo jabeari:

—Zaldiyori nerea da. Eman zayozu nai dan baliyua eta izango zera pagatua urretan.

Egun berriyak, eman zuen bezela argiya, an zijoan bere zaldi ja-

kintsu ederren gañean, astinduz koaje biziz, charkeriz obeto, arrazoiz baño, bere latigo edo larruzko arbazta mear bat.

Zaldi leyal goitiyak, merezi ez arren alako zitalkerizko kastigurik, eta damuz sentituz golpe ayen oñaseak, sufritzen zuen lotsaz bezela, baña zirikatu zuenian altzaidu zorrotzez, sayets biyak odoldurik, zutitu eta salto aundi bat emanaz, gañekuari jan asi diyo lurra gogo charretik berenik.

Ikusi zuenian bere oñetan alako umiltasun aundiyian, urrikaldurik agiyan, baña ezeren gorroto gabe, itz egiñ ziyon zaldiyak gazte ponparroyari modu onetan:

—Eztago ondo erregezkuak, obratzea orlako baju, zikinduz bere onore eta aunditasun guziya. Jauna, izan derilla justiziya borondateakin batean, nola sillan ala jargoyan.

VICTORIANO IRAOLA

